

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLAKO 2020-2021 IKASTURTERAKO KONTINGENTZIA PLANA

DOKUMENTUAREN EGITURA

1. SARRERA
2. PREBENTZIOZKO HIGIENE NEURRIAK
 - 2.1. Temperatura kontrola
 - 2.2. Maskararen erabilera
 - 2.3. Beste neurri higieniko-sanitario orokor batzuk
3. ANTOLAKETA OROKORRA
 - 3.1. Sarrerak, barruko lekualdaketak, edukierak
 - 3.2. Komunen erabilera
 - 3.3. Igogailu eta eskaileren erabilera
 - 3.4. Ikasle/ikasgelen banaketa
 - 3.5.TEKA-ren erabilera
4. ESKOLAK EMATEA
 - 4.1. Ikasle guztiak babesteko neurri orokorra
 - 4.2. Piano irakaskuntza
 - 4.3. Sokazko instrumentuak, perkusioa, banakako musikoterapia
 - 4.4. Haizezko instrumentuak
 - 4.5. Musika eta mugimendua, lengoaia musikala, musikoterapia kolektiboa, harmonia, abesbatza, instrumentu taldeak
 - 4.6. Piano-jotzaile laguntzailearekin entseguak
5. IRAKASLEAK
6. BESTE GAI BATZUK
 - 6.1. Instrumentuen mailegua
 - 6.2. Partituren eta liburutegiko materialaren mailegua
 - 6.3. Ikasketa gelak
7. MUSIKA ESKOLA KONFINAMENDU EGOERAN
8. NEURRI OSAGARRIAK
9. 1. ERANSKINA: FAMILIENTZAKO DEKALOGOA
10. 2. ERANSKINA: NOLA GOZATU MUSIKAREKIN: IKASTEKO ORIENTAZIOAK

1. SARRERA

COVID-19aren epidemiak eragindako egoeraren eboluzioa ikusita, Andrés Isasi Musika Eskolak beharrezkotzat jo du irakaskuntzako esku-hartzea oso-osorik planifikatzea 2020-2021 ikasturtera begira. Kontingentzia plan hori oinarritzen da Getxoko Udalak nahiz IMQ Prebentzioak emandako jarraibideetan (azken hau baita Musika Eskolan arriskuak prebenitzeko tutoretzaz arduratzen den enpresa), Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Aholkularitzak Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetarako ezarritako jarraibideetan eta musika irakaskuntzako beste zentro batzuek nahiz arlo horretan diharduten hezkuntza eta zientzia agintariek prebentziorako garatu dituzten orientazioetan.

Osasunerako eta hezkuntzarako eskubidea gordetzea izan da une-oro hezkuntzako administrazioan eta Andrés Isasi Musika Eskolan hartu diren erabakien erreferentzia, betiere goian aipatutako erakundeek markatutako ildoei jarraikiz.

2020-2021 ikasturtea irailaren 7an hasiko da aurrez-aurre. Plan honek eskolak irakaskuntza jarduera garatzeko ezarri dituen higie eta antolaketa neurriak jasotzen ditu, betiere ezarritako hezkuntza eta osasun protokoloetara egokituta. Horren helburu dira ikasleei eta langileei testuinguru segurua eskaintzea eskolan eta aurrez aurreko irakaskuntza jarduera garatu ahal izatea.

Gainera, Kontingentzia Planak Arreta Digitalerako Plana ezartzen du. Horrek bermatuko du irakaskuntza jarduerak aurrera jarraituko duela eskolako aurrez aurreko jarduera mugatu behar bada ere.

Kontingentzia Plana Musika Eskolaren webgunean argitaratuko da eta beharrezko zabalkundea emango zaio irakasleen, familien eta gainerako ikasleen eta administrazioako, zerbitzuetako nahiz garbiketako langileen artean. Kontingentzia Planari buruzko zalantza edo galderarik izanez gero, erabiltzaileek helbide honetara idatzi ahal izango dute: aisasi@getxo.eus.

Kontingentzia Planak ezartzen dituen neurriak berrikusi, moldatu eta zabaldu egin ahal izango dira osasun egoerak hala eskatuz gero. Unean-unean osasun eta hezkuntza agintaritzek ezarritako irizpideei jarraituko zaie horretarako.

Plan honetan finkatutako neurriek hainbat atal dituzte: neurri higieniko-sanitarioak, antolaketa orokorra, eskolak ematea, irakasleak, eta beste gai batzuk; bereziki, instrumentuen eta partituren mailegua eta ikasketa gelen erabilera. Planak, gainera, konfinamendua gertatuz gero eskolak izango duen jarduera arautuko duen plana jasotzen du. Dokumentua bi eranskinekin amaitzen da: lehenengoa, familientzako dekalogoak; bigarrena, etxeko ikasketekin laguntzeko eta musikaz gehiago gozatzeko gomendioak.

2.- PREBENTZIOZKO HIGIENE NEURRIAK

2.1.- Tenperaturaren kontrola:

Ikasle eta langile guztiei hartuko zaie gorputzeko tenperatura Eskolan sartzean. Norbanakoen erantzukizunari jarraikiz, Musika Eskolara joan aurretik norbere etxean tenperatura hartzeko aholkatuko da, eta sukarra (>37º) eta COVID-19arekin bat datozen sintomak dituzten ikasleak, irakasleak eta bestelako langileak ez dira bertaratuko .

Musika eskolak termometroak izango ditu neurri hori aurrera eramateko, eta Eskolara sartzean (eta beharrezkoa den beste edozein unetan) tenperatura hartzeko gomendatuko du. Metaketak

saihestuko dira beti, eta pertsonen artean gutxienez 1,5 metroko distantzia gorde daitekeela ziurtatuko da.

Ez dira zentrora bertaratuko COVID-19ren edozein sintoma daukatenak edo diagnostikoagatik isolatuta nahiz etxeko berrogeialdian daudenak COVID-19ren diagnostikoa edo sintomak dituen pertsonaren batekin gertuko kontaktua izan dutelako.

2.2.- Maskararen erabilera:

Arau orokor gisa, maskararen erabilera derrigorrezkoa izango da Musika Eskolako instalazioetara sartu nahi duen edonorentzat: ikasleak, irakasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, familiak eta Musika Eskolako gainerako erabiltzaileak. Derrigortasun hori espazio eta momentu guztietarako izango da, adieraz daitezkeen salbuespenen kasuan izan ezik.

Maskarillaren erabilera nahitaezkoa izango da ikasleak jarrita eta egokia den distantzia mantenduz egon arren.

2.3.- Beste neurri higieniko-sanitario orokor batzuk

- Derrigorrezkoa da eraikinera sartzean eskuak desinfektatzea. Eraikineko sarreran horretarako jarritako gela erabili behar da.
- Gomendagarria da eskuak sarri garbitzea, komunean edo hidrogelarekin. Gel hori ikasgela bakoitzean eskuragarri egongo da eta eraikinaren sarreran.
- Erabili eta botatzeko paperezko zapiak erabili behar dira, eta eraikinean dauden zaborrontzietara bota.
- Pertsona guztiek saihestuko dute begiak, ahoa eta sudurra ukitzea.
- Pertsona guztiek saihestu beharko lukete ekipoak, gailuak eta materiala partekatzea beste lagun batzuekin, baita leihoak itxi eta zabaltzea, argiak eta beste gailu batzuk piztea ere, salbu eta baimen berezia duten langileak baldin badira.
- Musika Eskolak indartu egingo du garbiketa zerbitzu profesionala. Zeregin horiek errazteko, lan eremuak ahalik eta gehien hustu beharko dira.
- Musika Eskolak langileen esku jarriko ditu maskarak eta gela. Horiek beharrezko maiztasunarekin berrituko dira, langileen osasuna bermatze aldera.
- Halaber, ikasle eta ikasleek lagundu egingo dute eskoletan erabilitako elementuak garbitzeko lanetan. Horretarako material berezia egongo da ikasgeletan eta Musika Eskolako bulegoetan.

3.- ANTOLAKETA OROKORRA:

3.1.- Sarrerak, barruko lekualdaketak, edukierak:

- Ahalik eta gehien mugatuko da zentroko langileak ez direnen presentzia. Zentroko langiletzat joko dira honako hauek: irakasleak, ikasleak, administrazioko langileak, mantentze-lanetakoak eta zerbitzu orokorretakoak.
- Gurasoak ez dira eraikinean sartuko. Ikasleei haien ikasgelak non dauden azaltzeaz arduratuko diren pertsonak egongo dira, bereziki ikasturteko lehenengo egunetan.

- Ahal dela, gurasoei eta tutoreei telefonoz edo telematikoki emango zaie arreta. Ezinezkoa izatekotan, aurrez hitzordua eman beharko zaie, maskarilla ekarri beharko da eta segurtasun distantzia gorde beharko da.
- Gurasoei eta ikasleei puntualtasuna eskatuko zaie: Ez iristea eraikineraz ez goizegi ez beranduegi, barruko lekualdaketen kontrola errazte aldera.
- Metaketak ekiditeko, eraikinaren barruko nahiz sartu eta irteteko mugimenduetarako nahiz ikasgai aldaketetarako zirkuitu bereziak ezartzen ahaleginduko da eskola (bereziki taldeko ikasgaiak). Arrazoi beragatik, familiakoak ezingo dira eraikinean sartu ikasleak jasotzera. Irteeran itxaron beharko dituzte.
- Eskola aldaketetan, banakakoetan nahiz taldekoetan, amaitu den eskolako ikasleak eta hasiko den eskolakoak ez dira elkartuko ikasgelan. Ikasleek korridorean itxarongo dute, edo Musika Eskolako langileek adierazitako lekuan.
- Minutu batzuk utziko dira eskolen artean, ikasgela aireztatzeko nahiz ikasgelen arteko lekualdaketak errazte aldera.

3.2.- Komunen erabilera

Segurtasun distantzia gordeko da komunetan. Hala, ezarritako distantzia gorde dezaketan pertsona kopuruak soilik erabili ahal izango dituzte.

3.3.- Igogailu eta eskaileren erabilera.

Pertsona bakarra joan ahal izango da igogailuan. Sartu behar denak laguntza behar badu, bi pertsona joan ahal izango dira, bakoitza bere maskararekin. Igogailua salbuespen gisa erabiliko da.

3.4.- Ikasle/ikasgelen banaketa

Instrumentuen irakaskuntzara bideratutako ikasgeletan ezin izango dira hiru pertsona baino gehiago elkartu, salbu eta zentroko zuzendaritzak berariaz baimentzen badu. Oro har, pertsonen artean 1,5-2 metroko gutxieneko distantzia bermatu beharko dugu. Haizezko instrumentuetara bideratutako ikasgelen kasuetan, bereizteko pantailak egongo dira ikasleen eta irakasleen guneen artean. Ahalik eta gehien saihestuko dugu ikasle eta irakasleen arteko kontaktu fisikoa.

Irizpide orokor gisa, ikasgela kolektiboetan ez dira 15 pertsona baino gehiago egongo. Taldeen kasuan, azpibanatuta antolatuko ditugu. Abesbatzak izan ezik, zeintzuek Areetan ematen baitiren, beste guztiak Algortan daude. Hala behar duten taldeentzat Areeta aretoa erabili ahal izango dugu asteleheneetik ostegunera 20:30era arte, eta ostiraletan 18:30era arte.

3.4.- ...TEKA-ren erabilera

Musika Eskolako gainerako espazioetan bezala, maskara erabiltzea derrigorrezkoa izango da ...Tekan,. Gehieneko edukiera 20 pertsonakoa izango da.

4.- ESKOLAK EMATEA

4.1.- Ikasle guztientzako babes neurri orokor gisa:

- Zentrora maskararekin joango da, eta jarrita izango du zentroko irakaskuntza jarduerak guztiak iraun bitartean. Ezarritako gutxieneko distantzia errespetatuko du.

- Eskuak garbituko ditu eskolen aurretik eta ostean.
- Instrumentuak banaka erabiltzeko izango dira ahal den heinean, beherago zehaztutako salbuespenetan izan ezik. Segurtasuna bermatze aldera, interpreteak eskuen higiena zaindu beharko du erabili aurretik eta ostean. Erabili ostean, desinfektatu egingo dira instrumentuari kalterik eragin gabe garbitu daitezkeen gainazalak (teklatuak, larakoak, bermatzeko guneak...).
- Partiturak, liburuak eta, oro har, inprimatutako material oro bakarka erabiltzekoak izango dira, ahal den neurrian.

4.2.- Piano, akordeoi eta trikitixa irakaskuntza

Instrumentua desinfektatzailearekin garbitzea eskolen artean, erabilera bakarreko papera edo baietak erabiliz.

4.3.- Sokazko instrumentuak, perkusioa, banakako musikoterapia:

Ez partekatu baketak, arkuak.

4.4.- Haizezko instrumentuak

- Maskara eta haizezko instrumentuak ezin daitezkeenez batera erabili, eskoletan bereizteko pantailak egongo dira irakasleen eta ikasleen artean.
- Ez partekatu aho-piezak inolaz ere.
- Soinuaren igorpenak kondentsazioa sortzen du instrumentuen pabilioietan, arnasketa dela eta. Bada, horrek birusa zabal dezake. Kutsatzeak ekiditeko, kondentsazio horretatik sortutako ura lurrian uztea saihestu behar da. Horretarako, interpreteek erabilera bakarreko xurgatzaileak erabiliko dituzte, edo kondentsazioak gorde eta deuseztatzeko beren ontzi propioak. Horiek pedaldun zaborrontzian utziko dituzte interpretazioa amaitzean.
- Ez dute energiagatik putz egin beharko instrumentua garbitzeko.

4.5.- Musika eta mugimendua, lengoia musikala, musikoterapia kolektiboa, harmonia, abesbatza, instrumentu taldeak

- Ohi bezala aplikatutako irizpide pedagogikoen arabera antolatuko dira taldeak: maila eta adina, eta ikastetxetik irteteko ordua kontuan hartuta.
- Talde bakoitza "bizikidetzako talde egonkorra" izango da.
- Ez dira antolatuko talde ezberdinen arteko kontaktua dakartzan jarduerak.
- Ikasgelak irekita egon ahal izango dira eskolek iraun bitartean.
- Eskola amaitzean, ikasle eta irakasleek aulkiak, mahaiak eta gainerako talde guztiek ere erabiltzen dituzten elementuak garbitzen lagunduko dute.
- Liburuak, partiturak eta materialak banaka erabili behar dira.

4.6.- Piano-jotzaile laguntzailearekin entseguak

Piano-ikasle/instrumentu irakasle arteko distantzia gordetzearen garrantzia gogorarazten da (ikaslearen entsegura joaten bada).

Entsegua haizezko instrumentuekin egiten bada, instrumentua ez zaio zuzenduko irakasleari.

5.- IRAKASLEAK

- Lehenengo eskola egunetan, irakasleek ikasleei azalduko dizkie sartu eta irteteko orduak, espazio komunak erabiltzekoak, eta bakoitzari dagokion sarrera eta irteera ordutegia. Aplikatu beharreko neurri higieniko-sanitario guztiak ere azalduko dira, bereziki segurtasun distantzia gordetzeari, maskara erabiltzeari, eskuak garbitzeari eta gela erabiltzeari buruzkoak.
- Instrumentuen eskolan edo taldeko eskolan ikasleen instrumentuak ukitzea beharrezkoa bada (afinatzeko, egokitzeko...), irakasleek eskuak desinfektatuko dituzte aurretik eta ostean. Eskularruak erabili ahal izango dituzte nahi izanez gero.
- Instrumentuen irakasleek ezingo dituzte taldeko jarduerak antolatu (eskola kolektiboak; bikoteen, hirukoteen nahiz bestelako formazioen entseguak...), baldin eta zentroko zuzendaritza taldeak baimentzen ez badu.
- Instrumentuak partekatzeke baldin badira, beste ikasle batek erabili baino 24 ordu lehenago berrogeialdian utzi beharko dira horretarako prestatutako espazio batean.
- Fotokopiagailuak, inprimagailuak eta abar erabiltzea: Beharrezkoa bada, txandak ezarri ahal izango dira fotokopiagailua erabiltzeko. Gomendagarria da materiala eskolen aurretik prestatzea, irakaskuntzarako tartean eraikin barruko lekualdaketak murrizteko. Irakasleak atezaindegira joan ahal izango dira fotokopiak eskatzera.
- Arrisku kolektiboetako parte diren langileek hala jakinarazi beharko diote zentroko zuzendaritzari. Azken horrek Musika Eskolako Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuari jakinaraziko dio.
- Irakasleek egunero kontrolatuko du ikasgai guzietako asistentzia, eta faltak eskolako aplikazioan apuntatuko ditu.

6.- BESTE GAI BATZUK

6.1.- Instrumentuen mailegua

Musika instrumentu bat erosteak duen kostuaren jakitun, Musika Eskolak familiei uzteko zenbait instrumentu dauzka. Familia horiek kontuan hartu behar dute ahal den neurrian ikasleek beren instrumentua izan behar dutela bere irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan behar bezala aurrera egin ahal izateko.

Honako hauek lehentasuna izango dute instrumentuak mailegatzeko:

- Instrumentu bat ikasten lehenengoz ari diren ikasleak.
- Ekonomikoki egoera behartsuan dauden ikasleak.

Ikasle bakoitzarentzako mailegurako aldia ez da izango hiruhileko bat baino laburragoa. Hiru hilean behin, gutxienez, instrumentua sakonki garbitu beharko da eta, beharrezkoa balitz (haizezko instrumentuen kasuan, esaterako), berrogeialdia igaro beharko dute.

6.2.- Partituren eta liburutegiko materialaren mailegua

- Gelan bertan kontsultatzea: ahal den neurrian, dokumentua aurrez eskatuko da (posta elektronikoz, telefonoz), eta gelan bertan kontsultatu ahal izango da baldin eta edukierak hala baimentzen badu eta aurrez esku biak desinfektatu badira. *Ondare funts musikalen* kasuan, aurretik hitzordua behar da.
- Dokumentuak uztea: Liburutegiko araudiaren arabera. Dokumentua ukitu baino lehen esku biak desinfektatzeko prebentzio neurri sanitarioak barne hartzen dituen erantzukizun dokumentua sinatu beharko da.

6.3.- Ikasteko gelak

Musika Eskolak ondorengo pertsoneri utziko die ikasteko gela:

- Etxean instrumenturik ez dutenak.
- Gazteenak. Ikasteko gela erabiltzeko ordutegia instrumentuaren saioaren aurretik edo ostean izaten saiatuko da.

Musika Eskolak, ikasteko gela erabiltzeko eskaria jaso ostean, ikasle bakoitzak hori erabiltzeko ordutegia ezarriko du.

Eskatzailea arduratuko da gela nahiz bertako materiala zaindu eta behar bezala erabiltzeaz, bai eta ikasteko gelan erabilitako instrumentua garbitzeaz ere.

7.- ESKOLAKO JARDUERA KONFINAMENDU EGOERAN

Instrumentuen irakaskuntza-ikaskuntza prozesua praktikoa da nagusiki, eta aurrez aurre egotea ezinbestekoa da hainbat eta hainbat alderdi lantzeko. Gainera, sozializazioaren osagaia ere hor dago. Taldeko praktikak motibaziorako oinarri gisa ere funtzionatzen du. Hala ere, oraingo egoera epidemiologikoa kontuan hartuta, jarduera bestelako mekanismoen bidez mantentzea ahalbidetuko duen antolaketa sistema bat behar dugu.

Irakasleek, haien ikasgaien bidez, ikasleen konpetentzia digitala garatzen lagunduko dute. Bereziki, modalitate ez-presentzian ikasketa prozesuari aurre egiteko beharrezko gaitasunak garatu beharko dira.

Hezkuntza lan digitala geroz eta garrantzitsuagoa denez (izan zentroan bertan, presentzialki, edo izan aurreko ikasturtean bezala, etxetik), behin eta berriz errepikatzen dugu halako lanetarako gailu digital egokia izatea komeni dela.

Ikasleei bidaltzen zaizkien zereginen maila dela eta, mugikorra edo tableta (horietako batzuk, gutxienez) ez dira horretarako gailu egokiak. Ordenagailu eramangarria izatea komeniko litzateke.

Irakaskuntzari dagokionez, eskolak berdin baloratuko ditu *online* irakaskuntza eta aurrez aurrekoa. Horrenbestez, irakasleek eta Musika Eskolak adierazitako jarraibide eta betebeharrak guztiak beteko dituzte ikasleek, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ahalik eta onena izan dadin. Ikasleek eskubidea dute kalitatezko irakaskuntza jasotzeko, horretarako eskura dauden baliabiderik egokienak erabiliz, eta bere eskola errendimendua objektibotasun irizpideekin balioztatuz. Hala, hiru hilean behin beren tutorearen txostena jasoko dute, ikasgaiaren aprobetxamendua, gaitasunak eta interesa jasoko dituenak.

Une horretan, Musika Eskolako irakaskuntza jarduera oro telematikoki egingo da. Ikasleek irakaskuntza ordutegi bat daukate ezarrita, eta horrekin jarraituko dute, irakasleak eta ikasleek edo bere familiak aldaketa adostu ezean. Saiora ez bertaratu edo konektatzea asistentzia faltatzen joko da, eta justifikatu egin beharko da. Ikasleek ikasketa kuotak ordaindu beharko dituzte epe honetan ere Musika Eskolaren araudiaren arabera.

Irakasleek ikasle bakoitzari adieraziko diote konektatzeko modurik egokiena zein den.

- Saiatu eskola hasi baino 5 minutu lehenago konektatzen, guztia behar bezala dagoela ziurtatzeko.
- Plataformara eta Jitsi Meeteko estekara jotzeko (Musika Lengoiaren irakaskuntzan “Musika ikasgela birtualaren” bidez ematen ditugun saioen kasuan), Google Chrome edo Firefox nabigatzailearen bidez egitea da onena.
- Soinua hobetzeko, ikasleek entzungailuak eta mikrofonoa erabiltzea gomendagarria da.
- Ikasleek ez dute txata erabili behar eskolak iraun bitartean, irakasleak hala adierazi ezean.
- Musika Hizkuntzako saioetan, mikrofonoa isilarazita egongo da harik eta irakasleak aktibatzen esan arte. Edozein galdera edo iruzkin egiteko, eskua jasotzeko ikurra saka dezakete.
- Eskola kolektiboetan bereziki, aurrez aurreko eskola batzeko arau berberak errespetatu beharko ditugu: Ez jan, ez zutitu eta gelatik irten, bidalitako zereginen jarraipena egin, gainerako kideei galdetzen zaienean entzun eta beti kamera aktibatuta izan.
- Isiltasuna eta kontzentrazio egokia bermatze aldera, garrantzitsua da ikaslea bakarrik egotea saioan zehar. Irakaskuntzarako autonomia eta erantzukizuna ere erraztuko du horrek.

8. NEURRI OSAGARRIAK

Musika Eskolaren egoitza bietan honakoei buruzko informazio kartelak egongo dira:

- Eskuen higiene egokia eta arnasketa higiena
- Gutxienez 1,5-2 metroko segurtasuneko distantzia
- Pandemia egoeran kontuan izan beharreko beste prebentzio arau batzuk.

1. ERANSKINA: FAMILIENTZAKO DEKALOGOA

Musika Eskolak zaindu egingo du, bereziki COVID-19 epidemiak eragindako egoera horretan, familiekin egiten den komunikazioa, bai irakasle tutoreengandik jasotako orientazioei dagokienez, bai zentroko zuzendaritzak eta administrazio arloarengandik jasotakoei dagokienez. Komunikazio kanalak ohikoak izango dira: jakinarazpen pertsonalak edo kolektiboak, nagusiki telematikoki jakinaraziak: sms, posta elektronikoa eta udal webgunearen Musika Eskola atala. Horien bidez COVID-19aren eboluzioaren berri emango dizuegu, eguneratutako iturri ofizialen bidez.

Informazio hori une-oro eguneratzen da Osasun Sailaren webgunean:

<https://www.euskadi.eus/nuevo-coronavirus-covid-19/>

<https://www.euskadi.eus/covid-19-koronabirus-berria> (euskaraz)

Dekalogo honetan, ikastetxeari hertsiki ez dagozkion arren, zentroarekin lotuta dauden eremuak nabarmentzen dira; beraz, eremu horietako kontrola, hala nola informazioa transmititzea, birusaren kutsatzea kontrolatzeko bermea izango da, eta, hala badagokio, foku posibleak detektatzeko trazabilitate egokia lortzea.

Dekalogo hau, lehenetsunez, adin txikiko seme-alabak dituzten familiei edo ikastetxeetan ezarritako jarraibideen transmisio egokia mugatzen duen desgaitasunen bat duten familiei zuzenduta dago.

Ikasturte hasieran bilerak egingo dira familiekin. Osasun Sailak eta Udal Prebentzio eta Osasunaren Zaintza Zerbitzuak helarazitako irizpideek betearazpena bermatuz Kontingentzia Planean txertatu ditugun neurrien berri emango zaie.

1. Ikasleak ezingo dira zentrorra bertaratu sukarra izanez gero (>37°C). Hala, familiek tenperatura kontrolatu beharko dute zentrorra iritsi baino lehen.
2. Pertsona bakarrak lagunduko du zentrorra eskola ordutegiaren hasieran edo amaieran eta, ahal den neurrian, pertsona bera izango da.
3. Laguntzaileak Musika Eskolan sartu ahal izango dira baldin eta hitzordua edo baimena badute.
4. Laguntzaileak ezin izango dira eskolaren inguruan pilatuta egon.
5. Eskolan sartzen den edonork beren maskara izan behar du, eta eskola orduetan zehar erabiltzeko baldintza higienikoak bermatu beharko dituzte maskara horiek.
6. Familiek lagundu egingo dute zentroak helarazitako jarraibideekin, oinarrizko higiene ohiturak errazteko asmoz:
 - zentroko seinaleak errespetatu
 - maskara erabili
 - eskuak garbitu
 - gelak aireztatu
 - bizikidetzat talde egonkorraren parte izan
7. Ikasle batek sintomak erakusten baditu zentroan, familiari jakinaraziko zaio. Beraz, derrigorrez eman behar dira telefonoz harremanetan jartzeko zenbakiak (bat baino gehiago, aukeran).

8. Ikasle batek sintomak erakusten baditu bere etxean, familiak tutoreari jakinaraziko dio, eta beharrezko informazioaren berri emango dio.
9. Hala eskatuz gero, familiak zentroaren esku jarriko du, trazabilitatearekin lotutako arrazoiak tarteko, zentrotik kanpo egiten dituen eskolaz kanpoko jardueri buruzko informazioa.
10. Ikasleen gurasoek edo tutoreek eremu emozionalarekin lotuta komenigarritzat jotzen duten informazio guztia helaraziko diote beren semearen edo alabaren tutoreari, baldin eta eremu horretan COVID-19 testuinguruari lotutako gabezia/zailtasunen bat aurreikusten bada.

Azkenik, eta tarte horretan familiei laguntzeko asmoz, Hezkuntza Sailak “COVID-19 Familientzako orientabideak” izeneko dokumentua argitaratu du, etxean osasun fisikoa eta emozionala zaintzeko gomendio erraz batzuk jasotzen dituen.

2. ERANSKINA: NOLA GOZATU MUSIKAREKIN

Erantsitako dekalogoaren helburua da etxeko ikasketa eta lanak prestatzen laguntzea:

- ε *Musika ikasteko egunero praktikatu behar da.*
- ε *Garai guztietan ikasi behar da musika (oporetan eta azterketa garaian ere bai).*
- ε *Hobe da ikasketa prozesua eguneroko saio laburretan antolatzea, eta ez asteburuan lan mordoa egitea.*
- ε *Ondo antolatu gainerako jarduera guztiak: etxeko lanak, ikasketak eta beste betebeharrak batzuk. Hala, guztirako astia izango duzu.*
- ε *Ezarri musika praktikatzeko ordu finkoak.*
- ε *Leku lasai eta isil bat behar duzu, ez molestatzeko eta ez zaitzaten molestatu.*
- ε *Has zaitetz ariketa teknikoekin edo soinu ariketekin, beroketa gisa.*
- ε *Partitura tentuz irakurri. Ez daude notak bakarrik. Sentitu musika.*
- ε *Ez jo beti obra hasieratik amaierara. Jardun ezazu pasarte zehatz batekin eta konpon itzazu arazo teknikoak, digitaziokoak... Apuntatu oharrak eta komenta itzazu zure irakaslearekin.*
- ε *Eskaini zure denboraren zati bat kontzertuetara joan eta musika entzuteari. Entzunez gauza asko ikas daitezke.*
- ε *Entzun zure burua arretaz: zaindu erritmoa, afinazioa, fraseatzea eta soinuaren kalitatea.*
- ε *Ikasketa inteligenteak denbora eta errepikapen asko aurrezten ditu.*
- ε *Musika Eskolako webean aurkituko duzun Musika Etxetik atalean sartu eta bertan aurkituko dituzun baliobide musikalekin disfruta ezazu.*